AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Prestatu eta trebatzeko ikastaroak

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

5468

EBAZPENA, 2013ko azaroaren 18koa, Hezkuntzako sailburuordearena, irakasleen hizkuntza-eskakizunetako Azterketa Batzordeko kide batzuk izendatzen dituena.

Hezkuntzako sailburuordearen 2012ko azaroaren 21eko Ebazpenak (2012-12-17ko EHAA) irakasleen hizkuntza-eskakizunetarako azterketa-batzordeak izendatu zituen lurralde bakoitzerako. Honako ebazpen honen xedea azterketa-batzorde horietako kide berri batzuk izendatzea da.

Honen ondorioz:

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Irakasleen hizkuntza-eskakizunetako azterketa-batzorderako honako kide hauek izendatzea:

Araban:

Castillo San Román
Marta Erauskin Olanga
Josune Odriozola Eizagirre
Jon Gurutz Ruiz de Azua Ormaza, Urtzi

Bizkaian:

Agirre Etxebarria
Hodei Legarreta Legarreta, Asier
Novoa Andueza, Idoia
Rodriguez Bengoa, Koldo

Gipuzkoan:

Ugartemendia Otxoa de Alaiza, Olatz

2. artikulua.– Aztertzaile hauek bi urterako izendatuta gelditzen dira, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen direnetik. Nolanahi ere, epe hori amaituta izendapen hau luzatu ahal izango da.

3. artikulua.– Azterketa-batzordeetako partaideek beharrezko isiltasuna gordeko dute batzordearen jardueren inguruan eta ez dute hirugarren pertsonarik informatuko azterketekin lotutako barne-gaiez (lanketa, materialak, zuzenketa, kalifikazioak etab.). Atal honetan ezarritakoa ez betetzea hutsegite larritzat hartuko da.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita jarriko da indarrean.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen honen aurka gorako errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, argitara eman eta hurrengo egunetik hasi eta hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko azaroaren 18a.

Hezkuntzako sailburuordea,
MIREN ARANTZA AURREKOETXEA BILBAO.